

azpeitia

XXX. Euskal Antzerki Topaketak

2012ko udazkena



azaroa

AZPEITIA

XXX. Euskal Antzerki Topaketak

Hemen dira!!! Hemen dira!!!
Iritsi da udazkena, eta berare-
kin hain gogoko ditugun Eus-
kal Antzerki Topaketak.

Aurten XXX. Azpeitian ospatzen di-
rauen XXX. edizioaren zuzen-
buruak antzerki-
gure antzerki-
hau eta bertan
antzezlanil
onenetaz
izaten d
gutik

Beraz, etzazue gal guzti ho-
netaz gozatzeko aukera, etor-
zaitezte antzerkia ikustera, du-
darik gabe eta bene-benetan,
pena merezi baitu.

AZPEITIA

XXX. Euskal Antzerki Topaketak

Hemen dira!!! Hemen dira!!!

Iritsi da udazkena, eta berare-
kin hain gogoko ditugun Eus-
kal Antzerki Topaketak.

Aurten XXX. Azpeitian ospatzen di-
rauen XXX. edizioaren zuzen-
buruak antzerki-
gure antzerki-
hau eta bertan
antzezlanil
onenetaz
izaten d
gutik

Beraz, etzazue gal guzti ho-
netaz gozatzeko aukera, etor-
zaitezte antzerkia ikustera, du-
darik gabe eta bene-benetan,
pena merezi baitu.

Antzerki

Antzerki Topaketak

agurra



IMANOL AMENABAR
Kultura Batzordebua

Dagoeneko 30 urte. Erraz esaten dira, baina urte guzti hauetan Azpeitiko Udalak ez du hutsik egin euskara eta kulturaren aldeko apustu sendoa mantentzeko orduan. Aurten urteurren borobila betetzen dute Euskal Antzerki Topaketak eta borobila, bertako egitaraua izango da. Data berezia ospatzeko asmoz, estreinaldiz betetako programa osatu baita, herritarrek zein kanpotarrek goza dezaten.

Azaroaren 2an emango zaio irekiera aurtengo edizioari eta hilaren 18a bitartean, talde profesional eta amateurrek gaur egungo euskarazko obrarik onenak eskainiko dituzte. Nabarmentzekoak da Artedrama taldearen “Publikoari gorroto” lehenbiziko egunean eta azaroaren 9ko Glu-Glu konpainiaren “Su txikian” obren estreinaldiak ikusiko ditugula Azpeitian.

Antzerki profesionalaren artean, herriko emakume taldeak eta beste elkarte amateurrek euren tarte izaten jarraituko dute. Batetik, antzerki amateurrari zuzendutako asteburu bat egongo da, hilaren 15etik 18ra, eta bestetik, ikastetxeei eskainitako obrak izango dira 12tik 15era.

Azpeitiak antzerkigintzan duen garrantzia handitzen doa, horren seinale da Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak (EHAZE) Azpeitian duela egoitza izatik. Elkarteak Topaketetan murgildu nahi izan du eta mahai-inguru bat antolatu dugu elkarlanean. Patxo Telleria, Esther Uria, Gabriel Aresti eta Mikel Martinez ‘Nola erein euskal teatroa’ gaiaz arituko dira Sanagustin kulturagunean.

Antzerki mundua gertutik ezagutu eta gaur egun, euskarazko obra onenak ikusteko parada bikaina eskaintzen da. Animatu eta hartu parte euskal antzerkiaren topagunean!

egitaraua azaroa

2, ostirala

HELDUENTZAT
ANTZERKI
EMANALDIA

“PUBLIKOARI GORROTO”
ARTEDRAMA

21:30ean, Soreasu Antzokian



3, larunbata

HELDUENTZAT ANTZERKI
EMANALDIA

“GOENKALE TEATROA”
PAUSOKA eta GLU-GLU

21:30ean, Soreasu Antzokian

4, igandea

HAUR + HELDUENTZAT
“ZAPATA GORRIAK”
PATATA TROPIKALA

18:00etan, Soreasu Antzokian

6, asteartea

HELDUENTZAT
ANTZERKI
EMANALDIA

“ELKARHIZKETA SU TXIKIAN”
GLU-GLU

20:00etan, Udaletxean, ganbaila-kupula dagoen gelan



9, ostirala

HELDUENTZAT
ANTZERKI
EMANALDIA

“ELKARHIZKETA SU TXIKIAN”
GLU-GLU

20:00etan eta 22:30ean,
Soreasu Antzokian



10, larunbata

MAHAI INGURUA

“EUSKAL TEATRO BERRI
BATEN BEHARRA: EUSKAL
KOMEDIA”

EHAZE- Euskal Herriko antzerki
zaleen elkartearekin elkarlanean
12:00tan, Sanagustin
Kulturgunean

HELDUENTZAT ANTZERKI
EMANALDIA

“LINGUA NABAJORUM”
TARTEAN TEATROA

21:30ean, Soreasu Antzokian

Oharra:

Emanaldia hasi aurretik **EHAZE,**
Antzerkizale Elkarteak
III. Antzerkizale Saria
banatuko du.

11, igandea

HAUR + HELDUENTZAT
“AUZOKIDEAK”

PANTA RHEI

18:00etan, Soreasu Antzokian

12/13/14/15
eskola edo
gaztetxoei
zuzenduriko
antzerkia

11:00etan eta 15:30ean,
Soreasu Antzokian

Antzerki
amateurri
zuzenduriko
asteburua

15, osteguna

POLTXXIKOKO ANTZERKI
EMANALDIAK eta ANTZERKI
ALTERNATIBOA

“ISPILUA”

ALDATZEN LAGUNTZEN
TALDEA

21:30ean, gaztetxean

16, ostirala

HELDUENTZAT ANTZERKI
EMANALDIA

“IZAN BEDI EMAKUMEA”

KOLDARRAK

ANTZERKI TALDEA

21:30ean, Soreasu Antzokian

17, larunbata

HELDUENTZAT ANTZERKI
EMANALDIA

“BAI, NAHI DUT”

AZPEITIKO EMAKUME

TAILERRA

21:30ean, Soreasu Antzokian

18, igandea

HAUR + HELDUENTZAT
AMAIAERAKO
ANTZERKIA

“ALABATXO”

TARTEAN TEATROA

18:00etan, Soreasu Antzokian



Borja eta Maite Eizagirre anai-arreben kartela hautatu da topaketak iragartzeko

Lehenagotik saiakerak eginda bazauden ere, aurten lortu dute Borja eta Maite anai-arrebek Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketa irabaztea. Sorpresa handia izan zen beraientzat sariketako lehen postua eskuratzea, izan ere “azken astean egin genuen guztia, baina oso gustura gaude”.

Maitek diseinu grafikoko ikasketak eginda ditu eta diseinatzaile bezala egiten du lan Azkoitian. Bertan, Herrixen merkataritza elkartearen logotipoaren lehiaketa irabazi zuen. Borja, aldiz, argazkilaritza munduan sartuta dabil eta pare bat sari lortu ditu arlo horretan.



“oso oso gustura gaude!”

“PUBLIKOARI GORROTO”

ARTEDRAMA

Helduen antzerki
emanaldia

ESTREINALDIA



azaroak

2
ostirala

21:30ean
Soreasu Antzokian

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Ekoizlea:** Artedrama
- **Banaketa:** Artedrama
- **Teknika:** Xabino Alkorta
- **Argiztapen diseinua:** Josep Duhau
- **Administrazioa:** Vinceznç Claverie, Elorri Etcheverry eta Xabino Alkorta
- **Musika:** Xabi Strubell
- **Kartela:** Lontxo Yriarten / Urrutia
- **Argazkiak:** Ainhoa Resano
- **Web arduraduna:** Zuriñe Soto

Aktore bat, bi ikusle, agertoki bat. Besterik ez du behar antzerkiak: hortik aurrera hasten den jokoan, dena da posible. Teatroari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra hau, publikoarekiko keinuz eta umorez; pixkanaka, ordea, arimaren barrunbe ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... giza izatearen amildegi ertzera iristeraino.

“GOENKALE TEATROA”

PAUSOKA eta GLU-GLU

Helduen antzerki emanaldia

azaroak
3
larunbata

21:30ean
Soreasu Antzokian

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Egilea:** Kepa Errasti, Pausokako Gidoigile taldea
- **Zuzendaritza:** Jokin Oregi
- **Aktoreak:**
Xabier Perurena
Ylenia Baglietto
Felix Arkarazo
Maria Cruickshank
Yannick Vergara
Carlos Nguema
- **Argiztapena:** Zigor Gorostiola
- **Eszenografia diseinua:**
Eider Ibarondo

- **Jantziak:** Amaya Samper
- **Musika:** Santiago Ramos
- **Makilajea:** L & J Maquillaje
- **Kartelaren diseinua:** Gorka Minguez
- **Argazkiak:** Ignacio Pérez
- **Talde teknikoa:** Star Lan, Txerran Azaola
- **Ekoizpen exekutiboa:**
Itziar Zeberio - Cristina Bernal
Mari Cruz Melgosa - Toño Pinto
- **Ekoizpena:** PAUSOKA - GLU GLU
- **ESKERRAK:** Elgoibarko Herriko Antzokia, Eibarko Coliseo Antzokia, Tolosako Leidor Antzokia

Pausokak eta Glu Gluk ETBko Goenkale programa mitikoa agertokira eraman dute. 18 urte egin ditu gure artean eta ikus-entzuleentzat fikziorik gustukoena izan da. Hori dela eta, Goenkalek omenaldia merezi du, antzezlan bat. Gaur egungo ikus-entzuleek aukera izango dute serie horren aktoreez eta espirituaz zuzenean gozatzeko, oroitzeko, irribarre egiteko, abesteko eta emozionatzeko, serie hori hainbat urtez ondoan izan baitute, haiekin hazi baita.

Goenkale antzezlanaren adin-nagusitasuna lortu dugulako egindako oparia da, eta opari hori ikus-entzuleei hurbildu nahi diegu, konplizitatez betetako emanaldi atsegin eta dibertigarri batean.

“ZAPATA GORRIAK”

PATATA TROPIKALA

Haur + Helduentzat
antzerki emanaldia

azaroak

4
igandea

18:00etan
Soreasu Antzokian

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Egilea:** Kepa Errasti, Pausokako Gidoigile taldea
- **Gidoia** PATATA TROPIKALA
- **Zuzendaria:** IKER ETXARRI
- **Antzezleak:** JUDITH POVES eta MAITE PEREA
- **Atreztoa:** IKER ETXARRI
- **Dekoratuak:** ANDER (AND PROPS)
- **Koadroa:** MARIJO SAMPEDRO
- **Jantziak:** JUDITH POVES
- **Musikak:** IKER ETXARRI
- **Argiak:** ANDER JAUREGI

Zapatari batek zapatak saltzen ditu, baina ez dira zapata arruntak, ezin ditu edonork jantzi, ausarta, sentibera eta burua erabiltzen jakin behar du zapata hauek jantziko dituenak...

Amets gure protagonista, zapatak jantziko ditu eta izugarritzko abenturan murgilduko da. Bertan, Rem ametsen munduko atezaina, ezagutuko du. Honek, ametsen mundua arriskuan dagoela ohartaraziko dio. Amets, gaiztoen makinatik salbatu beharko gaitu Lo aztia aurkitzen duen bitartean. Bestela guztiok hemendik aurrera irudimena galduko dugu eta robot eta makinetan bihurtuko gara,

lortuko al du?

Patata tropikalak berriro ere izugarritzko abenturan murgilduko gaitu. Bertan, txontxongiloak, antzerkia, humorea eta irudimena dantzan ikusiko ditugu, izugarritzko artelan bat gozatuko dugularik.

"ELKARRIZKETA SU TXIKIAN"

GLU-GLU

Helduen antzerki emanaldia



azaroak

6

asteartea

20:00etan
Udaletxean
ganbailan

AURRE-ESTREINALDIA
Gonbidatutako
prentsa eta kultur
eragileentzat soilik!

ESTREINALDIA

azaroak

9

ostirala

20:00eta 22:30ean
Soreasu Antzokian

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Egilea:** Galder Perez
- **Zuzendaritza:** Galder Perez
- **Aktoreak:**
Martxelo Rubio
Jose Mari Karrere
Mañu Elizondo
Patxi Gonzalez
Gabriel Ocina
Libe Aranburu
Ugaitz Alegria
- **Musika:** Maite Arroitauregi "mursego"
- **Argiztapena:** Zigor Gorostiola

- **Eszenagrafia:** Kiko Salguero
- **Jantziak:** Arantxa Gil
- **Infografia:** Iñigo Maestro
- **Kartela:** Gorka Minguez
- **Argazkia:** Ignacio Perez
- **Makilajea eta ileapaindegia:** LJ Maquillaje
- **Hizkuntza Aholkularia:** Jon Sanchez Barrado eta Mañu Elizondo
- **Off Ahotsak:** Ane Zabala
- **Ekoi zen exekutiboa:** Mari Cruz Melgosa - Toño Pinto
- **Ekoi zena:** GLU GLU

Itxaropenez betetako garai historikoa bizi du Euskal Herriak, agertoki politiko berri bat abian jartzeko oinarriak ezartzen ari baitira. Liskarrek eta sufrimenduak markatu duten gure azken urteotako historiako epea ixteko zorian da, eta bakea eta askatasuna lortzerako bidean daude. Azken hamarkadan egindako sukalde lanaren ondorioa da gaur egungo egoera. 2001. urtean Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek elkarren arteko elkarrizketa sekretuak hasi zituzten Txillare baserrian. Honek bidea irekiko zien urte batzuk beranduago politikari sozialistak ETako ordezkariekin Genevan eta Oslon izandako negoziazioei eta baita Loiolan EAJ-PNV, PSE-EE eta Ezker Abertzalearen arteko elkarrizketei ere. Su txikian egin zen hori guztia, sukalde barruko kontuak behar bezala konpondu eta gero egongelara eramateko asmoz, konponbideak euskal jendarteari aurkezteko asmoz, alegia. 2007ko udaberrian, ordea, dena hankaz gora geratu zela zirudien, baina isilpeko bilera haiek gaur bizi dugun egoera berriaren aurrekariak izan zirela baieztatu daiteke. "Elkarrizketa su txikian" antzezlanak ezinbesteko elkarrizketa eta bilera sekretu haiek taula gainera eramango ditu, bere lorpenean eta frustrazio guztiekin, eta baita bere ondorioekin ere: ETaren jardueraren armatuaren behin betiko amaiera eta bake prozesuaren zein elkarrizketa hasiera.

“LINGUA NABAJORUM”

TARTEAN TEATROA

Helduen antzerki emanaldia

azaroak

10 larunbata

21:30ean
Soreasu Antzokian

LINGUA
NABAJORUM

EUSKARAREN
HISTORIA
TXOROA

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Aktoreak:** Mikel Martínez
Patxo Telleria
- **Zuzendaria:** Jokin Oregi
- **Egilea:** Patxo Telleria
- **Eszenografia:** Jokin Oregi
- **Eszenografiaren eraikuntza:** Iñaki Ziarrusta (ATX teatroa)
- **Jantziak/atreztoa:** Nati Ortiz de Zarate
- **Musika eta Soinua:** Jose Urrejola
- **Argiztapen diseinua:** MILAKAMOON
- **Argi Teknikoak:** Zaloa / Gaizka (MILAKAMOON)
- **Diseinu Grafikoa:** DiDa
- **Ekoizpena:** TARTEAN / EZ DOK HIRU bikoteatroa
- **Ekoizpen exekutiboa:** Ane Pikaza
- **Banatzailea:** Julio Perugarria Producciones

Lingua Nabajorum: Euskeraren Historia zeinean gizona gizonaren kontra eta euskalduna eta euskaldunaren kontra diharduten.

Euskaldunak historian zehar beti ibili dira liskarrean kanpokoekin edo euren artean. Egileen arabera liskarrok sortu eta garatu dute euskera. Gatazka bakoitzari euskeraren aldaketa bat dagokio.

Hortaz, euskeraren garapena ez da inoiz geldituko, gatazkak, modu batekoak edo bestekoak, beti egongo direlako.

¿Eszeptikoak? ¿Deskonzertatuak? ¿Teoria hau gaitzesten duzue? Utzi albo batean aurreritziak. Ikusi “Lingua Nabajorum” eta... izugarrikeria hau asmatu dutenak txikitu nahi izango dituzue. Horrela euren tesia frogatuta geratuko da: gatazkak beti iraungo du, zuek aberrazio hau definitzeko hitz berriak sortzeko beharra nozituko duzue, eta horrela euskerak aurrera jarraituko du bere bilakaeran.

“AUZOKIDEAK”

PANTA RHEI

**Haur + Helduentzat
antzerki
emanaldia**

azaroak

11

igandea

18:00etan
Soreasu Antzokian



Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaria:** Emilio Fdz de Pinedo
- **Aktoreak:**
Maidar Galarza
Urtza Zuazo
Ieneko Ruiz de Azua
- **Eszenografia:**
Panta Rhei
Verónica Werckmeister

- **Txotxongiloak:**
La Mosquitera Producciones
Taller Panta Rhei
- **Koreografia:** Marina Ruiz

Aitzol, Hugo eta Ekieder hiru neska-mutil dira, eta aniztasun funtzionala dute. Auzo berean bizi dira eta ikastolara joaten dira, zu bezalaxe. Baina, zorientasuna galtzeko arriskuan daude. Haien abenturen berri emango digute.

Istorio hau lagungarria da funtzionaltasun aniztasuna zer den ulertzeko, bai eta berdintasuna eta adiskidetasuna sustatzeko ere.

eskola antzekia

azaroak 12 - 13 - 14 eta 15

azaroak 12

Antzezlanana: KLAUN BEACH

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Donostiako Zurriola ikastetxea (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH6 maila

Ikusleak: LH 3-4-5 mailakoentzat

Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlanana: HILKETA

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Donostiako Zurriola ikastetxea (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH6 maila

Ikusleak: LH 3-4-5 mailakoentzat

Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlanana: XAGU TRANPA (suspense antzerkia)

Ordua: 15:30ean

Ikastetxea: Lasarte-Oriako Landaberi BHI ikastetxea (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: DBH eta BATX

Ikusleak: LH 6 eta DBH 1-2 - 3 - 4 mailakoentzat

Iraupena: 60 minutu inguru

azaroak 13

Antzezlanana: ERBIA

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Zumadi HLHI .Amezketeta (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH6 maila

Ikusleak: LH 3-4-5 mailakoentzat

Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlanana: OLERKI ETA ANTZERKITXOAK

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Zumadi HLHI .Amezketeta (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH 2-3 maila

Ikusleak: LH 3-4-5 mailakoentzat

Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlana: S.O.S
Ordua: 15:30ean
Ikastetxea: Azpeitiko Ikastola Ikasberri (Gipuzkoa)
Antzeleen maila: DBH 2 eta 4 mailak
Ikusleak: LH6 eta DBH 1-2-3 eta 4
Iraupena: 60 minutu inguru

azaroak 14

Antzezlana: ZERBITZUZ KANPO (ABSURDOAREN ANTZERKIA)
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Bilboko Kirikiño ikastola (Bizkaia)
Antzeleen maila: DBH4 maila
Ikusleak: DBH 1-2-3- 4 eta Batxilergoa
Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlana: TREN GELTOKIA
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Bilboko Kirikiño ikastola (Bizkaia)
Antzeleen maila: DBH 3-4 eta Batxilergoko 2. maila
Ikusleak: DBH 1-2-3- 4 eta Batxilergoa
Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlana: ALTXOR MAGIKOAREN BILA
Ordua: 15:30ean
Ikastetxea: Salesianos Barakaldo (Bizkaia)
Antzeleen maila: Izar Berriak (amak)
Ikusleak: HH- LH 1-2
Iraupena: 50 minutu inguru

azaroak 15

Antzezlana: SEKRETIEN LAPURRAK
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Azpeitiko Gazteria Saila (Gipuzkoa)
Antzeleen maila: LH 5 – 6
Ikusleak: LH 5 eta 6
Iraupena: 20 minutu inguru

Antzezlana: MARIANO PIANO
Ordua: 11:00etan
Ikastetxea: Azpeitiko Gazteria Saila (Gipuzkoa)
Antzeleen maila: DBH 2-3-4
Ikusleak: DBH 1 eta 2
Iraupena: 40 minutu inguru

“ISPILUA”

ALDATZEN LAGUNTZEN TALDEA

**Helduen antzerki
emanaldia**

azaroak

15 osteguna

21:30ean
Gaztetxean



Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Egilea:** Ion Martinez Esnaola
- **Antzezlanaren egilea:**
Ion Martinez Esnaola
- **Aktoreak:**
Saioa Royo
Ion Martinez Esnaola
- **Zuzendariak:**
Saioa Royo
Ion Martinez Esnaola
Santi Calzada

Drama eta komedia uztartzen dituen antzezlan bat da.

Bi aktoreek eszenatokian, antzezlan bat nola prestaten ari diren ikusten da. Antzezlan, gaur egungo gizartean bikoteak askotan nola elkartzen diren ikusten da, larunbat gau batean elkartzen direnetik, bere bizitzak erabat zuzenduta ikusi arte. Hori kontutan harturik, 2 aktoreek antzezlan nola prestatzen duten ikusiko da eta prestatzen ari dituzten eszenen artean, beraien pentsaerak eta sentimentuak adieraziko dituzte. Horren aurrean beraien ere nola aurre egingo dioten ikusiko da, beraien arteko erlazioa nolakoa den ikusiko delarik.

Maitasunari buruzko reflexioa da, non ikusleari erakutsi nahi diogu erlazioak aurrera egiteko eran, ondo pentsatu eta gure barnetik benetan desio ditugun erabakiak izan behar direla.

Ikusleari bikoteen gai ezberdinetan zalantza eta ausnarketa egin dezan dugu, antzezlan honetan helburu.

“IZAN BEDI EMAKUMEA”

KOLDARRAK

Helduen antzerki emanaldia

azaroak

16 ostirala

21:30ean

Soreasu Antzokian



KOLDARRAK
— ANTZERKI TALDEA —

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Zuzendaritza:** Koldo Campos Sagaseta
- **Idazlea:** Koldo Campos
- **Antzerleak:**
 - Alberto Agirrebeña
 - Gaizka Astigarraga
 - Itziar Elias
 - Pablo Domingez
 - Naroa Epelde
 - Koldo Campos
- **Itzultzailea:** Jose Luis Otamendi

Koldo Camposek idatzitako antzezlan da “Hagase la mujer”, urteetan latinoamerikan zehar konpainia ezberdinak antzeztu dute. Orain Koldo Campos beraren zuzendaritzapean eta Jose Luis Otamendik euskeratua “Izan bedi emakumea”, Koldarrak antzerki taldeak antzeztuko du.

Paradisuan inkatutako fikziozko komedia da. Ekintza bakarrean, paradisuko etxeko lan eta gizonaren ugalketaz arduratuko den gizakia sortzeko asmoan, jaungoikoa eta gizonaren artean sortuko diren arazoak kontatzen ditu. Arazoak anditzen joango dira, batik bat, kontratatuko Emakumeak aitortzen duenean bera ez dela espero zuten “emakumea” eta hura ez dela berak espero zuen paradisu.

“BAI, NAHI DUT”

AZPEITIKO EMAKUMEEN ANTZERKI TAILERRA

Bai, nahi dut



21:30ean

Soreasu Antzokian



Helduen emakume tailerra

Fitxa artistikoa eta teknikoa

- **Gidoia:** Alaitz Olaizola
- **Aktoreak:**
Aizpea Ibarbia
Amaia Garmendia
Haizea Egiguren
Garazi Urbina
Ane Arenas
Nora Arenas
M.Karmen Borda
Ametz Cañizares
Erika Olaizola

Olatz Egiguren
Lurdes Arrieta

- **Eszenografia:** Iñigo Borda
LAKRIKUN Antzerki Taldea
- **Laguntzaileak:** Emakumeen antzerki tailerreko kide ohiak eta Lakrikun Antzerki Taldea
- **Laguntza eta antolakuntza:** Parekidetasun Saila eta Emakumeen Mahaia

Gure lagun Kontxiren oroimenez.

Klarak bere lagunak elkartu ditu neguko iluntze hotz batean. Batzuk betiko lagunak dira, besteak berriagoak... Senideak ere badaude tartean, eta baita ezezagunen bat ere... Klararen aitzakian elkartu dira guztiak, iluntze atsegin bat pasatzeko asmoz.

Lagunari buruz dena dakigula uste dugu gehienetan, sekretu guztien jakitun garena...

Adiskidetasuna zer den definitzera bultzatuko ditu Klarak. Bakoitzak bere ikuspegitik aztertuko du egoera, adiskidetasunaren mamia, harremanaren gakoa.

Ondorioak, bakoitzak atera ditzala!!

Umorez eta emozioz betetako antzerki lana duzue honako hau, Emakumeen antzerki tailerrak prestatzen duen bederatzigarrena.

“ALABATXO”

TARTEAN TEATROA

**Haur + Helduentzat
antzerki emanaldia**

azaroak

18 igandea

18:00etan
Soreasu Antzokian



Fitxa artistikoa eta teknikoa

● Dramaturgia eta zuzendaritza:

Jokin Oregi

● Aktoreak:

Ana Meabe

Javier Renobales

Jose Rasmon Soroiz

● Diseinu artistikoa: Jose Ibarrola

● Eszenografia, atrezzo: Javi Tirado

● Musika : Santiago Ramos

● Jantziak: Mayda Zabala

● Argiztapena: Milakamoon

● Baliabideen Teknikoa : Tarima

● Teknikoa : Bea Santolaya

Laida haurdun dago. Martin senarra eta biak pozez zoratu beharrean daude, jaiotza eguna noiz iritsiko irrikaz. Dagoeneko hasi dira imaginatzen nolakoa izango den euren aitamatasuna. Zoriona erabatekoa litzateke baldin eta arazo nabarmen eta ageriko bat izango ez balute: Eurekin, etxe berean, Laidaren aita bizi da, Tomas zaharra, gizon ozpindu eta erretxindua. Tomas beti dabil haserre, kexuka, jelskor, umetuta askotan, bihurri gehienetan. Laida pazientzia galduta dabil aspaldion aitaren gorabeherekin.

Halako batean baina, gauzak erabat aldatuko dira: Laidak haurra galduko du. Ondorioz, bai Laida eta baita Martin ere lur jota geratuko dira. Laidak ezin izango dio buelta eman nahigabeari, errealtateari aurre egiteko indarririk gabe gelditu da. Orduan, bere aita Tomasek, bere alabatxo maitea sofrizten ikustean, hari laguntzeko erabaki sendoa hartuko du. Samurtasun eta indar guztiez saiaturiko da alaba ilunpetik ateratzea lortzen duen arte.

MAHAI-
INGURUA

MAHAI-
INGURUA

MAHAI-
INGURUA

azaroak

10 larunbata

12:00etan
Sanagustin Kulturgunea

“EUSKAL TEATRO BERRI
BATEN BEHARRA:
EUSKAL KOMEDIA” EHAZE- Euskal Herriko
antzerki zaleen elkartearekin elkarlanean

EHAZE SARIAK

Oharra:

Emanaldia hasi aurretik **EHAZE, Antzerkizale
Elkartek III. Antzerkizale Saria** banatuko du.

azpeitia

XXX. Euskal Antzerki Topaketak

2012ko udazkena 

